







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %1,3 egin zuen behera abenduan, 2015. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %3,7 jaitsi zen eta etxekoan %1,6; hirugarren sektorean edo zerbitzuetan, berri, %3,4 igo zen.

Guztira, 2016ko kontsumoak %5,1 egin zuen behera, aurreko urtekoarekin alderatuta; etxeko sektorean %3,1 jaitsi zen, industrian %8,1 eta zerbitzu arloan, ordea, %0,1 igo zen. Industrian gora egin zuten sektoreak, besteak beste, hauexek izan ziren: garraio bideen eraikuntza eta ontzigintza (+%7,8), burdinazkoa ez den metalurgia (+%6,6), kautxuzko eratorriak eta kare eta zementu sektorea (+%4,4). Behera egin zuten sektoreak, gehienbat, siderurgiaren (-%20,2) eraginez izan zen.

Gas naturala

Abenduan, gas naturalaren guztizko kontsumoak %11,7 egin zuen gora, 2015eko abenduan izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %3,7 igo zen eta gainerako sektoreena %13,3.

Orotara, 2016ko kontsumoak %7,3 egin du behera, aurreko epealdiaren aldean, (-%22,4 CCTT-n eta -%4 gainerako sektoretan).







Erregaiak garraioan

Azaroan, garraioan erregaien kontsumoa %9,2 igo zen, 2015. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %1,8 egin zuen gora eta A gasolioarenak %10.

Azaro arteko kontsumo metatua %4,8 igo zen, 2015eko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %1,5 egin zuen gora eta A gasolioarenak %5,1.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan

Abenduan, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 95,5 milioi kupel izan zen (2015eko abenduan izandakoaren aldean, %0,7 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %2 egin zuen behera kontsumoak, 13,5 Mbpd kantitatara iritsiz; Txinan %3,5 egin zuen gora, eta 11,6 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan %0,5 jaitsi zen, eta 19,5 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, azken 6 hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,4 igo da, oro har, Txinan %3,1, AEBetan %0,1 eta Europar Batasunean %1,9.

Energiaren kontsumoa Espainian






Espainian, gas naturalaren kontsumoak %11,4 egin zuen gora abenduan, 2015eko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Guztira, 2016an izandako kontsumoak %1,5 egin zuen gora.

Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen abenduan, %2,3, 2015eko abenduan izandakoaren aldean. Orotara, 2016an izandako kontsumoak %0,4 egin zuen gora.

Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %5,5 egin zuen gora azaroan, 2015eko hil berean izandakoarekin konparatuta; gasolinaren kontsumoa %3,4 igo zen eta gasolioena %5,9. Azarora bitarteko kontsumo metatua %3,2 egin zuen gora, 2015. urteko epealdiaren aldean, (%2,5 igo zen gasolinena eta %3,4 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %3,7 egin zuen gora azaroan; azarora bitarteko kontsumo metatua %6,5 igo zen, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 54,1\$ (51,3€) izan zen abenduan. Urtebetean prezioak %43,3 egin zuen gora (%48,1 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 60,5 €/MWh izan zen abenduan; duela urtebete zegoenaren aldean, %15 egin zuen gora. 2016an batez besteko prezioa 48,4 €/MWh izan zen (2015ekoaren aldean, %22,9 egin zuen behera).

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 17 €/MWh izan zen azaroan, eta %10,6 jaitsi zen, 2015eko hil berean izandakoarekin erkatuta. Abenduan, EGIX-en prezioa 19,2 €/MWh izan zen (2015eko abenduan izandakoarekin alderatuta, %27,9 jaitsi zen). Spot merkatuetan, abenduan Henry Hub-en prezioa 11,6 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 22 €/MWh (2015eko hil horretan izandakoaren aldean, %92,1 egin zuen gora eta %6,3 egin zuen behera, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, azaroan, gasolioaren prezioa 1,04 €/l izan zen (urtebetean %1 jaitsi da), eta gasolinarena 1,15 €/l (urtebetean %0,1 egin du behera).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 5,16 €/t izan zen abenduan, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %38,1 jaitsi da.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.